| | |
|---|---|
| ***BURLATAKO UDAL MUGAPEAN ARRISKUGARRI GERTA DAITEZKEEN ANIMALIEKIN HARREMANA DUEN LEGEDIA*** | ***LEGISLACIÓN RELACIONADA CON LOS ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE BURLADA*** |
| ***50/1999 Legea, abenduaren 23koa, Arriskugarri gerta daitezkeen Animaliak Edukitzeko Erregimen Juridikoari buruzkoa.*** | ***Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos.*** |
| **3. artikulua. Lizentzia.**<br><br>1. Lege honi jarraikiz, arriskutsua izan daitekeen edozein animalia edukitzeko, **aurrez lizentzia administratibo bat eskuratu** beharko da, eskatzailea bizi den udalerriko **Udalak emanen duena**, edo, Udal honetan aurrez jasota dagoela, merkataritza edo trebakuntza jarduera egiten den udalerriko Udalak, betiere gutxienez honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatu ondoren:<br><br>a) Adinez nagusi izatea eta ez egotea ezindurik animalia behar bezala zaintzeko.<br><br>b) Ez izatea inoiz kondenatua honako delitu hauetakoren batengatik: homizidioa, lesioak, torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkakoak, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkakoak, lotura talde armatu batekin edo droga salerosketarekin. Ildo beretik, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko eskubideaz gabetua ez egotea epaile baten ebazpenagatik.<br><br>c) Gaitasun psikologikoaren agiria.<br>d) Frogatzea erantzukizun zibileko aseguru bat egin izana, animaliek hirugarrenei eragiten ahal dizkieten kalteengatik, erregelamenduz ezartzen den gutxieneko estaldura duena. | **Artículo 3. Licencia.**<br>1. La tenencia de cualesquiera animales clasificados como potencialmente peligrosos al amparo de esta Ley requerirá la **previa obtención de una licencia administrativa, que será otorgada por el Ayuntamiento** del municipio de residencia de La persona solicitante, o, con previa constancia en este Ayuntamiento, por el Ayuntamiento en el que se realiza la actividad de comercio o adiestramiento, una vez verificado el cumplimiento de, al menos, los siguientes requisitos:<br>a) Ser mayor de edad y no padecer incapacidad para proporcionar los cuidados necesarios al animal.<br>b) No haber sido condenado/a por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad o contra la integridad moral, la libertad sexual y la salud pública, de asociación con banda armada o de narcotráfico, así como ausencia de sanciones por infracciones en materia de tenencia de animales potencialmente peligrosos.<br>c) Certificado de aptitud psicológica.<br>d) Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceras personas que puedan ser causados por sus animales, por la cuantía mínima que reglamentariamente se determine. |
| ***Burlatako udal mugapean animaliak edukitzeari buruzko Udalaren osasun ordenantza (2014ko ekainaren 2ko 66 Aldikaria).*** | ***Ordenanza Municipal de Sanidad sobre la tenencia de animales en el Término Municipal de Burlada (Boletín nº 66 de 2 de junio de 2004).*** |
| **14. artikulua**<br>Pertsonei edo beste animalia batzuei lesioak egin edo behin eta berriz haiek molestatzen dituzten animaliak, edo honako arau hauek lehenagotik ere hautsi dituztenak, udal zerbitzuek bahituko dituzte, fakultatibo eskudunaren ikuskapenarekin.<br>Lagun egiteko animali batek, arriskugarri gerta daitezkeenen artean hasiera batez sailkatua ez izan | **Artículo 14.**<br>Los animales que causen lesiones a las personas o a otros animales, o que sean causas de molestias repetidas o reincidentes en infracciones a la presente normativa, podrán ser decomisados por los Servicios Municipales actuando bajo inspección de persona facultativa competente.<br>En el caso de agresión a personas o a otros animales, por parte de un perro u otro animal de compañía |

| | |
|---|---|
| arren, beste animalia bati edota pertsona bati eraso egiten badio, titularrak obligazioa badu arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia tramitatzeko, eta 5 eguneko epea izanen du horretarako. Halaber, horrelakoak edukitzeko arautegi berariazkoa bete beharko du. Bestela, animalia bahituko da eta Udalaren esku geldituko.<br>Zakur ausikigilearen jabe edo edukitzailea beharturik dago animaliaren datuak ematera erasotua gertatu denari edo haren legezko ordezkariei, bai eta, eskatzen badizkiote, agintari eskudunei ere. Gainera, beharturik daude animalia eurekin edukitzera, albaitaritza zerbitzu eskudunek zehazten dituzten denbora eta baldintzetan. | inicialmente no catalogado como potencialmente peligroso, el titular tiene la obligación de tramitar la licencia para la tenencia de animales potencialmente peligrosos en el plazo de 5 días, y cumplir con la normativa específica de aquellos. En caso contrario el animal será decomisado y pasará a disposición municipal.<br>Asimismo, la persona propietaria o tenedora del animal agresor tiene la obligación de facilitar los datos del animal implicado a la persona agredida o a sus representantes legales y a las autoridades competentes que lo soliciten. Además tienen obligación de retener al animal durante el periodo de tiempo y condiciones que determinen los servicios veterinarios competentes. |
| **VII. KAPITULUA (Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak)**<br>**43. artikulua. Definizioa.**<br>Ondotik zehazten dira arriskugarri gerta daitezkeen animaliak:<br>1._Izatez basa direnetakoak izanik, etxeko gisa erabiliz, edo lagun egiteko, pertsonei nahiz beste animalia batzuei lesioak eragin edo heriotza eman diezaieketen espezie edo arrazatakoak direnak, eta ondasunei kalte egiten ahal dietenak, erasokorrak izan ala ez.<br>2._Honako arraza hauetako zakurrak: **pit bull terrier, staffordshire bull terrier, american staffordshire terrier, rottweiler, dogo argentinarra, fila brasildarra, Tosa Inu, Akita Inu, Mallorcako harraparia, Kanarietako harraparia, mastin napolitarra, bullmastiff, dobermann eta tosa japoniarra**. Horietaz gain, oro har, arraza horien aitzinekoak izanik, beren ezaugarri etnikoak dituztenak eta beren gurutzatzeak.<br>3._Edozein espezietakoak izanik, eraso eta defentsarako berariaz erakutsi edo heziak izan diren animaliak.<br>4._Edozein espezietakoak izanik, behin bederen pertsonaren bati eraso egin diotenak.<br>Horrelako animaliak dituztenek berenak identifikatzeko dokumentazioa izan beharko dute, osasun egoera nahiz inmunizazioak ere bertan aipatzen direla, eta udal zerbitzuei erakutsi beharko diete, eskatzen baldin bazaie.<br>**44. artikulua. Lizentzia.** | **CAPITULO VII (Animales potencialmente peligrosos)**<br>**Artículo 43. Definición.**<br>Se consideran animales potencialmente peligrosos los que a continuación se detallan:<br>1._Los animales que, pertenecientes a la fauna salvaje, siendo utilizados como animales domésticos, o de compañía, con independencia de su agresividad, pertenecen a especies o razas que tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a las personas u otros animales y daños a las cosas.<br>2._Los perros de las razas **Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier, American Starffordshire Terrier, Rottweiler, Dogo Argentino, Fila Brasileiro, Tosa Inu, Akita Inu Presa Mallorquín, Presa Canario, Mastín Napolitano, Bullmastiff, Dobermann y Tosa Japonés**, y en general, todos los animales descendientes de estas razas que presenten rasgos étnicos de las mismas y de sus cruces.<br>3._Los animales de cualquier especie que hayan sido específicamente entrenados o adiestrados para el ataque y la defensa.<br>4._Los animales de cualquier especie que hayan tenido un solo episodio de agresión clara a personas.<br>Las personas poseedoras de estos animales deberán disponer de la documentación identificativa de los mismos, incluyendo su estado sanitario e inmunizaciones, y presentarla a los Servicios Municipales cuando les sea requerida.<br><br>**Artículo 44. Licencia.** |

| | |
|---|---|
| 1._Ordenantza honetan oinarriturik, arriskugarri gerta daitezkeenen artean sartzen den animalia baten jabe edo edukitzaileak lizentzia berezi bat izan beharko du. Lizentzia eskatu beharko da animalia eskuratu baino lehen, aurreko artikuluko 1, 2, 3 eta 5. ataletako kasuetan, eta 4. ataleko kasuan, berriz, 5 eguneko epearen barrenean, animaliak pertsonaren bati eraso egin dionetik hasita. | 1._Las personas propietarias o tenedoras de cualquier animal clasificado como potencialmente peligroso al amparo de esta ordenanza requerirán una licencia específica. La licencia se solicitará previamente a su adquisición en el caso de los Apartados 1, 2, 3 y 5 del artículo anterior y en el caso del apartado 4, en el plazo de 5 días desde que se haya producido una agresión a personas por el animal. |
| 2._Lizentzia eskuratzeko, honako baldintza hauek beharko dira:<br>a) Adinez nagusi izatea eta ez egotea ezindurik animalia behar bezala zaintzeko.<br>b) Ez izatea inoiz kondenatua honako delitu hauetakoren batengatik: homizidioa, lesioak, torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkakoak, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkakoak, lotura talde armatu batekin edo droga salerosketarekin. Ildo beretik, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko eskubideaz gabetua ez egotea epaile baten ebazpenagatik.<br>c) Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzearen inguruko arau-hauste larri edo oso larriengatik zehatua ez izana, lizentzia aldi baterako eteteko zehapena izan ezik, hura osoki bete bada.<br>d) Ahalmen fisiko eta gaitasun psikologikoaren agiria, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko.<br>e) Egiaztatzea erantzukizun zibileko aseguru bat egin izana, animaliek hirugarrenei egiten ahal dizkieten kalteengatik, bederen urtebeteko iraupena eta gutxienez ehun eta hogei mila (120.000) euroko zenbatekoa duena.<br>f) Kasuan kasuko ordenantzetan onartzen den udal tasa ordaintzea. | 2._Para obtener dicha licencia se precisaran los siguientes requisitos:<br>a) Ser mayor de edad y no padecer incapacidad para proporcionar los cuidados necesarios al animal.<br>b) No haber sido condenado/a por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad o contra la integridad moral, la libertad sexual y la salud pública, de asociación con banda armada o de narcotráfico, así como no estar privado/a por resolución judicial del derecho a la tenencia de animales potencialmente peligrosos.<br>c) No haber sido sancionado/a por infracciones graves o muy graves en materia de tenencia de animales potencialmente peligrosos, salvo la sanción de suspensión temporal de la licencia si esta ha sido cumplida íntegramente.<br>d) Certificados de disponer la capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.<br>e) Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceras personas que puedan ser causados por sus animales por una cuantía mínima no inferior a **ciento veinte mil euros** y con una vigencia al menos anual.<br>f) Abonar la tasa municipal que se apruebe en las correspondientes ordenanzas. |
| 3._Lizentzia eskatzera beharturik daude arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak, baldin eta Burlatako Udalerrian bizi badira edo haiek salerosi nahiz trebatzeko jarduera Burtalan egiten bada. Era berean, lizentzia hau eskatu beharko dute animalia arriskugarrien jabe edo edukitzaileek, animaliak hiru hilabetez bederen Burlatan egon behar badu.<br>Aipatu jabe edo edukitzaileek betebehar hori izatea alde batera utzirik, edozein herritarrek jakinarazten ahalko dio Burlatako Udalari mota honetako animaliak dituzten pertsonak badirela, Udalak legeen arabera bidezkoak diren urratsak eman ditzan. | 3._Están obligados a solicitar la licencia las personas propietarias o tenedoras de animales potencialmente peligrosos en el caso de que la o el solicitante viva en Burlada, o cuando la actividad de comercio o adiestramiento se realice en Burlada. Igualmente deberán solicitar esta licencia las personas propietarias o tenedoras de animales peligrosos cuando el animal vaya a permanecer en Burlada al menos tres meses.<br>Esta obligación de las personas propietarias o tenedoras de animales potencialmente peligrosos se establece sin perjuicio de la facultad de los ciudadanos y ciudadanas de comunicar al Ayuntamiento de Burlada la existencia de personas que son propietarias |
| 4._Lizentziak 5 urteko iraupena izanen du, eta indarrik | |

| | |
|---|---|
| ez galtzeko beharrezkoa izanen da hura eskuratzeko eskatu ziren betebeharrei eustea denbora horretan guztian.<br>Aurrekoa ukatu gabe, Udalak egiaztatzen ahalko du, lizentziak irauten duen bitartean, ofizioz edo salaketaren ondorioz, arriskugarri gerta daitekeen animaliaren jabe edo edukitzaileak eusten ote dien lizentzia eskuratzeko betebeharrei, eta, ikuskapena egin ondotik, egiaztatzen bada arriskugarri gerta daitekeen animaliaren jabe edo edukitzaileak ez duela betetzen baldintzetakoren bat, kontsideratuko da ez duela lizentziarik animalia edukitzeko eta hasiera emanen zaie behar diren ekintzei. | o tenedoras de este tipo de animales a fin de que el Ayuntamiento lleve a cabo las acciones que legalmente sean oportunas.<br>4._La licencia tendrá una vigencia de 5 años y estará condicionada en todo caso al mantenimiento de los requisitos para obtenerla.<br>No obstante lo anterior, el Ayuntamiento puede comprobar, de oficio o por denuncia, durante la vigencia de la licencia que cualquier persona propietaria o tenedora de un animal potencialmente peligroso mantiene los requisitos para obtener la licencia, y, en caso de que tras la correspondiente inspección, se compruebe que la persona propietaria o tenedora de un animal potencialmente peligroso carece de alguno de los requisitos, se considerará que no tiene licencia para la tenencia del animal y se iniciarán las acciones oportunas. |
| **45. artikulua. Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe, hazle eta edukitzaileen betebeharrak.**<br>Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe, hazle eta edukitzaileek honako betebehar hauek dituzte:<br>a) Arriskugarri gerta daitekeen animalia edukitzeko lizentzia eskuratzea, ordenantza honetan zehazten den epean.<br>b) Ordenantza honetako 44. artikuluko 2. atalean zehazten den lizentzia eskuratzeko baldintzak berdin mantentzea eta horietakoren bat galtzen bada, berehala jakitera ematea.<br>c) Erregistroan sartzea arriskugarri gerta daitezkeen beren animalia guztiak, ordenantza honetan ezartzen den epearen barrenean.<br>d) Udalari jakinaraztea animaliaren lapurreta edo galera, gertatzen denetik bost eguneko epean, bai eta hura beste inori utzi edo saldu zaiola ere, edo hil egin dela, hamabost eguneko epean, identifikaziorako datuak emanda.<br>e) Animalia eskuratzeko unean, beste jabe baten izenean zentsaturik baldin badago, jabe berriak, eskuratu aurretik, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren jabe izan beharko du, eta Udalari jakinarazi beharko dio, eskuratzen duenetik hasi eta bost eguneko epean, gehienez ere, animaliaren jabe aldaketa gertatu dela.<br>f) Erregistroko datuetan gertatzen den beste edozein aldaketa ere jakinarazi beharko da, gehienez ere | **Artículo 45. Obligaciones de las personas propietarias, criadoras y tenedoras de animales potencialmente peligrosos.**<br>Las personas propietarias, criadoras y tenedoras de animales potencialmente peligrosos deberán cumplir con las siguientes obligaciones:<br>a) Obtener la licencia para la tenencia de un animal potencialmente peligroso en los plazos que se señala en esta ordenanza.<br>b) Mantener los requisitos para obtener la licencia que se menciona en el apartado 2 del artículo 44 de esta ordenanza y comunicar la pérdida de alguno de ellos de forma inmediata.<br>c) Inscribir en el registro cada animal potencialmente peligroso que tengan o posean, dentro de los plazos que se señalan en esta ordenanza.<br>d) Comunicar al Ayuntamiento el robo o pérdida del animal en un plazo de cinco días desde que se produzca el hecho, así como la cesión, venta o muerte en el plazo de quince días, indicando su identificación.<br>e) Si en el momento de adquirir el animal éste ya estuviera censado por un anterior propietario/a, la nueva persona propietaria, antes de la adquisición, deberá estar en posesión de la licencia de tenencia de animales potencialmente peligrosos y comunicar al Ayuntamiento, en el plazo máximo de cinco días desde su adquisición, el cambio de titularidad del animal.<br>f) En todo caso, deberá comunicarse cualquier otra variación en los datos del registro en un plazo no |

| | |
|---|---|
| hamabost eguneko epean. | superior a quince días. |
| g) Animalia zikiratu edo antzutu dela jakinarazi beharko dute, hala jabeak eskaturik gertatzen denean nola administrazio nahiz epaitegiko agintaritzaren ebazpen edo aginduaren ondorioz egiten bada. | g) Deberán comunicar la castración o esterilización del animal si ésta se produce bien a petición del propietario/a o por mandato o resolución de la autoridad administrativa o judicial. |
| h) Arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan aurkeztu beharko dituzte, urtea amaitu baino lehen, albaitariaren urteroko azterketa egiaztatzen duen agiria, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko gaitasun fisikoa eta psikologikoa erakusten duen ziurtagiria, eta mota honetako animaliak edukitzeak dakartzan arriskuetatik babesteko formalizatzen den aseguruaren nahiz erantzukizun zibileko sariaren kopia konpultsatuak. | h) Deberán presentar en el registro municipal de animales potencialmente peligrosos, antes del final de cada año el certificado correspondiente a la revisión veterinaria anual, el certificado de capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos, así como copia compulsada del seguro y de la prima de responsabilidad civil que se formalice para cubrir los riegos derivados de la tenencia de este tipo de animales. |
| i) Arriskugarri gerta daitekeen animalia bat Burlatara ekartzen bada, mugarik gabe edo hiru hilabetetik goitiko denbora baterako, jabea beharturik egonen da arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan sartzera. Animaliaren egonaldia hiru hilabetetik beheitikoa bada, edukitzaileak egiaztatu beharko du bere ohiko bizilekuan betetzen duela arriskugarri gerta daitezkeen animalien gaineko araudia, eta higiene nahiz osasun aldetik edo herritarren segurtasunerako behar diren neurriak hartu beharko ditu. | i) El traslado de un animal potencialmente peligroso a Burlada, sea de carácter permanente o por periodo superior a tres meses, obligará a su propietario/a a efectuar las inscripciones oportunas en el registro municipal de animales potencialmente peligrosos. Si la estancia del animal es por periodo menor a tres meses, su poseedor/a deberá acreditar el cumplimiento de la normativa vigente sobre animales potencialmente peligrosos en su lugar habitual de residencia y adoptar las medidas higiénico-sanitarias y de seguridad ciudadana adecuadas. |
| j) Oro har, animaliak edukitzeari buruz bete behar diren obligazio guztiak kunplitu beharko ditu. | j) En general deberán cumplir con todas las obligaciones relacionadas con la tenencia de animales. |
| k) Betebehar horietarako epea kasu bakoitzean zehaztuko da, eta, eperik zehazten ez bada, hamabortz egunekoa izanen da. | k) El plazo para cumplir estas obligaciones es el que se señale en cada supuesto y, en el caso de que no se haya previsto un plazo concreto, será de quince días. |
| **46. artikulua. Erregistroa.** | **Artículo 46. Registro.** |
| Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabeek, erregistroan sartu nahi badituzte, Burlatako Udalari jakinarazi beharko dizkiote honako datu hauek: | Las personas propietarias de animales potencialmente peligrosos deberán comunicar al Ayuntamiento de Burlada para su inscripción en el registro los siguientes datos: |
| a) Animaliaren espeziea. | a) Especie de animal. |
| b) Animaliaren identifikaziorako zenbakia, hala behar badu. | b) Número de identificación animal si procede. |
| c) Arraza. Gurutzatu ondoko lehenbiziko belaunaldikoa bada, jatorriko arrazak aipatuko dira. | c) Raza. En caso de cruce de primera generación, se especificarán las razas de procedencia. |
| d) Sexua. Erreseina edo erreseina erdia. | d) Sexo. Reseña o media reseña. |
| e) Jaioteguna. | e) Fecha de nacimiento. |
| f) Animaliaren ohiko bizilekua, zehazturik gizakiekin batera edo bestela biziko ote den, alegia, zaintza, babes edo aipatzen den halako beste xede baterako den. | f) Domicilio habitual del animal, especificando si está destinado a convivir con los seres humanos o, si por el contrario, tiene finalidades distintas, como la guarda, protección u otra que se indique. |
| g) Jabearen izena, helbidea eta NANa. | g) Nombre, domicilio y DNI del propietario. |

| | |
|---|---|
| h) Animaliaren haztegiaren edo sorlekuaren datuak.<br>i) Albaitari kolegiatu baten urteroko azterketak, zeinetan egiaztatuko baita animalia osasunez nola dagoen, bereziki arriskugarria bihurtuko duen eritasun edo nahasterik ez duela, ez eta borroketan nahiz bestelako jarduera debekatuetan erabilia izatearen ondoriozko lesio edo orbainik ere.<br>j) Hezi duten zentroko datuak, halakorik bada.<br>k) Eraso kasuak.<br>l) Mikrotxip identifikagarria paratua duela dioen agiria.<br>Datu horiek denak erregistroan sartuko dira eta aldaketarik gertatzen bada, jabeak horren berri eman beharko du, erregistroan sartu behar den aldaketa gertatu ondoko hamabortz eguneko epean, eraso kasuetan izan ezik, halakoetan berehala jakinarazi behar baita.<br><br>**47. artikulua. Segurtasun neurriak.**<br>1._Eremu publikoetan, higiezin kolektiboetako eremu komunetan, eta, oro har, erabilera publikorako diren toki eta eremuetan, kapitulu honetan aipatzen diren zakurrak gehienez ere bi metroko luzera duen katearekin edo uhal luzaezinarekin lotuta eta muturrekoa jantzia dutela (homologatua eta zakurraren arrazari egokitua) eramanen dira. Inoiz ere ezin izanen dira eraman pertsona bakoitzeko zakur hauetako bat baino gehiago eta adin txikikoek ezin izanen dituzte inola ere eraman.<br>2._Arriskugarri gerta daitezkeen zakurrak dituzten instalazioek ezaugarri hauek izan beharko dituzte, animaliak handik atera eta hirugarrenei kalterik egin ez diezaieten:<br>a) Hormek eta hesiek behar adinako altuera eta sendotasuna izan beharko dute. Orobat, tinko egon beharko dute, animaliaren pisua eta presioari eusteko.<br>b) Instalazioetako ateek ingurupenaren gainerakoa bezain sendoak eta eraginkorrak izan beharko dute, eta haien diseinuaren bidez saihestu beharko da animaliek beraiek segurtasun mekanismoak erauzi edo ireki ahal izatea.<br>c) Barrutiak behar bezala seinalatua egon beharko du, mota horretako zakurrak daudela ohartaraziz.<br><br>**48. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.**<br>1._Arau-hauste administratibo arinak izanen dira | h) Datos del establecimiento de cría o de procedencia.<br>i) Revisiones veterinarias anuales ante una o un profesional colegiado que acredite la situación sanitaria del animal, la inexistencia de enfermedades o trastornos que lo hagan especialmente peligroso, así como la ausencia de lesiones o cicatrices relacionadas con la utilización del animal en peleas u otras actividades prohibidas.<br>j) Datos del centro de adiestramiento, en su caso.<br>k) Incidentes de agresión.<br>l) Acreditación de que lleva instalado un microchip identificativo.<br>Todos estos datos quedaran recogidos en el registro y la persona propietaria deberá comunicar cualquier variación de los mismos en el plazo de quince días desde que se haya producido el cambio del dato que proceda registrar, excepto en los incidentes de agresión en que la comunicación será inmediata.<br><br>**Artículo 47. Medidas de seguridad.**<br>1._En las vías públicas, en las partes comunes de los inmuebles colectivos, en los lugares y espacios de uso público en general, los perros a que hace referencia este capítulo, deberán ir atados, con cadena o correa no extensible de menos de dos metros de longitud y provistos del correspondiente bozal homologado y adecuado a su raza, sin que pueda llevarse más de uno de estos perros por persona y en ningún caso pueden ir conducidos por menores de edad.<br>2._Las instalaciones que albergan a los perros potencialmente peligrosos deben tener las siguientes características, a fin de evitar que los animales salgan de las mismas y cometan daños a terceras personas:<br>a) Las paredes y vallas deben ser lo suficientemente altas y consistentes y deben estar fijadas a fin de soportar el peso y la presión del animal.<br>b) Las puertas de las instalaciones deben de ser tan resistentes y efectivas como el resto del entorno y deben diseñarse para evitar que los animales puedan desencajar o abrir ellos mismos los mecanismos de seguridad.<br>c) El recinto debe estar convenientemente señalizado, con la advertencia de que hay perros de este tipo.<br><br>**Artículo 48. Infracciones y sanciones.**<br>1._Tendrán la consideración de infracciones administrativas leves, el incumplimiento de cualquiera |

| | |
|---|---|
| kapitulu honetako obligazioetako edozein ez betetzea, artikulu honen 2 eta 3 zenbakietan ez badaude. | de las obligaciones establecidas en el presente capítulo no comprendidas en los números 2 y 3 de este artículo. |
| 2._Hauek arau-hauste administratibo larriak izanen dira: | 2._Tendrán la consideración de infracciones administrativas graves las siguientes: |
| a) Arriskugarri gerta daitekeen animalia aske uztea edo behar diren neurriak ez hartzea haren ihesa edo galera eragozteko. | a) Dejar suelto un animal potencialmente peligroso o no haber adoptado las medidas necesarias para evitar su escapada o extravío. |
| b) Animaliari identifikagarria paratzeko betebeharra ez betetzea. | b) Incumplir la obligación de identificar al animal. |
| c) Erregistroan ez inskribatzea. | c) Omitir la inscripción en el registro. |
| d) Arriskugarri gerta daitekeen zakurra, toki publikoetan, muturrekorik gabe edo katez lotu gabe egotea. | d) Hallarse el perro potencialmente peligroso en lugares públicos sin bozal o no sujeto por cadena. |
| e) Pertsona bakar batek arriskugarri gerta daitezkeen bi zakur eramatea, edota horrelako zakur bat adin txikiko batek eramatea. | e) Conducir dos perros potencialmente peligrosos por una sola persona, conducir un perro peligroso por persona menor de edad. |
| f) Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak garraiatzea, abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 10. artikuluan xedatua urratuz. | f) El transporte de animales potencialmente peligrosos con vulneración de lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre. |
| g) Lege honek ezarritako egitekoak bete beharrez agintari eskudunek edo haien agenteek eskatzen dituzten datu eta argibideak emateari uko egitea edo eman nahi ez izatea, baita argibide okerrak edo dokumentazio faltsua ematea ere. | g) La negativa o resistencia a suministrar datos o facilitar la información requerida por las autoridades competentes o sus agentes en orden al cumplimiento de funciones establecidas en esta ley, así como el suministro de información inexacta o de documentación falsa. |
| 3._Hauek arau-hauste administratibo oso larriak izanen dira: | 3._Tendrán la consideración de infracciones administrativas muy graves las siguientes: |
| a) Arriskugarri gerta daitekeen animalia, edozein espezietakoa izanik ere, abandonatzea, eta orobat edozein zakur, eta animalia abandonatutzat hartuko da bai aginduari jarraikiz identifikatua doana bai bere etorkiaz edo bere jabeaz identifikagarririk batere eramaten ez duena, betiere inork lagundurik ez badoa. | a) Abandonar a un animal potencialmente peligroso, de cualquier especie y cualquier perro, entendiéndose por animal abandonado tanto aquel que vaya preceptivamente identificado como los que no lleven ninguna identificación sobre su origen o propietario/a, siempre que no vayan acompañados de persona alguna. |
| b) Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edo zakurrak lizentziarik gabe edukitzea. | b) Tener perros o animales potencialmente peligrosos sin licencia. |
| c) Arriskugarri gerta daitekeen animalia edo zakurra edozein tituluren bidez eskualdatzea edo saltzea lizentziarik ez duenari. | c) Vender o transmitir por cualquier título un perro o animal potencialmente peligroso a quien carezca de licencia. |
| d) Animaliak heztea haien erasokortasuna pizteko edo xede debekatuetarako. | d) Adiestrar animales para activar su agresividad o para finalidades prohibidas. |
| e) Gaitasun agiria ez duenak arriskugarri gerta daitezkeen animaliak heztea. | e) Adiestrar animales potencialmente peligrosos por quien carezca del certificado de capacitación. |
| Arriskugarri gerta daitezkeen animaliekin lehiaketak, ariketak, erakustaldiak edo ikuskizunak antolatzea edo egitea, edo haietan parte hartzea, animalien erasokortasuna erakusteko badira. | La organización o celebración de concursos, ejercicios, exhibiciones o espectáculos de animales potencialmente peligrosos, o su participación en ellos, destinados a demostrar la agresividad de los animales. |
| 4._Aitzineko 2 eta 3. ataletan tipifikaturiko arau-hausteek berekin ekartzen ahalko dute, zehapen | 4._Las infracciones tipificadas en los apartados 2 y 3 |

| | |
|---|---|
| osagarri gisa, arriskugarri gerta daitekeen animalia konfiskatzea, bahitzea, antzutzea edo akabatzea, establezimendua ixtea eta arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia edo hezitzaile gisa gaitzen duen agiria aldi baterako edo behin betikoz etetea.<br>5._Aitzineko 1, 2 eta 3 zenbakietan tipifikaturiko arau-hausteak isun hauekin zehatuko dira:<br>a) Arau-hauste arinak, 150 eurotik 300 eurora bitarte.<br>b) Arau-hauste larriak, 300,01 eurotik 2.404 euro bitarte.<br>c) Arau-hauste oso larriak, 2.404,01 eurotik 15.025 euro bitarte. | podrán llevar aparejadas como sanciones accesorias la confiscación, decomiso, esterilización o sacrificio de los animales potencialmente peligrosos, la clausura del establecimiento y la suspensión temporal o definitiva de la licencia para tenencia de animales potencialmente peligrosos o del certificado de capacitación de adiestrador/a.<br>5._Las infracciones tipificadas en los anteriores números 1, 2 y 3 serán sancionadas con las siguientes multas:<br>a) Infracciones leves, desde 150 euros hasta 300 euros.<br>b) Infracciones graves, desde 300,01 euros hasta 2404 euros.<br>c) Infracciones muy graves desde 2404,01 euros hasta 15.025 euros. |